

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak Ernest Martínezi eskerrak eman dizkio Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren zuzendari modura egin duen "lan izugarriagatik"

*Azpimarratu du haren zuzendaritzapean NOS "kalitate artistiko handiko, ospe distiratsuko eta nazioartean proiektzio aipagarria duen" talde profesional bihurtu dela*

Lunes, 10 de junio de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak [Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren \(NOS\)](#) zuzendari Ernest Martínez Izquierdo-ri eskerrak eman dizkio azken hamabost urteotan Espainiako orkestra beteranoaren (Pablo Sarasatek sortu zuen 1883an) zuzendari egin duen "bilakaera-lan izugarriagatik".



Barcina Lehendakaria eta Sánchez de Muniáin kontseilaria, Ernest Martínez-ekin, erdian.

Lehendakariak Ernest Martínez hartu du azken horrek kargua uztera doala eta, eta diploma bat eman dio. Diploma horretan jasotzen da NOS bere zuzendaritzapean "kalitate artistiko handiko, ospe distiratsuko eta nazioartean proiektzio aipagarria duen" talde profesional bihurtu dela.

Testuak aitortzen du, halaber, zuzendariak "herritar nafarrek musikarekiko duten maitasuna areagotzeko egin duen lana eta gure lurraren kultur ospea handitzeko egin duen lana".

Gogoratu behar da Ernest Martínez 1997an heldu zela Nafarroako Orkestra Sinfonikora, orduan oraindik Pablo Sarasate Orkestra izena zuela. Orduan ia talde erdi-profesionala zen, 34 musikarirekin, aurrekontu txikiarekin eta 500 abonatu baino gehiagorekin.

Gaur egun, ordea, 60 musikari inguruko lan-talde egonkorra du, eta hura zabaldu egiten da programak hala eskatzen duenean. 2.300 abonatu baino gehiago ditu Iruña eta Tuteran, eta estatuan nahiz nazioartean ezagutzera eman da.

Ernest Martínez-en zuzendaritzapean, NOS Espainian ez ezik, Alemanian, Polonian, Txinan eta Frantzia aritu da. Gainera, nazioartean ospe handia duten bakarlariekin batera jo izan du: María Bayo, Gidon Kremer, Michel Camilo, Eva Podles edo R. Buchbinder-rekin, esaterako, eta obra ezagunak interpretatu izan ditu: Carmina Burana, Haydn-en

sorkuntza edo J. Brahms-en requiem aleman bat.

Ernest-ek hainbat sari jaso du: Radio Nacional de Españaren Ojo Crítico (1995), Kataluniako Musika Klasikoaren Kazetaritzako Roland saria (2000), Bartzelona Hiria saria (2001) eta Latin Grammy (2006), besteak beste. Gainera, 2006. urtetik aurrera, Sant Jordiko Arte Ederren Kataluniako Errege Akademiako kide da.

Harreran, berekin batera izan dira, NOSaren lehendakari María Jesús Artaiz; orkestraren gerente Florentino Briones; eta NOSaren lehen biolin-jotzaile Vicente Balaguer. Gobernuaren aldetik, bertan izan dira Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin, eta Kulturako zuzendari nagusi Ana Zabalegui.

**Argazki-oina (ezkerretik eskuinera):** Vicente Balaguer, Elena Lacasia, María Jesús Artaiz, Yolanda Barcina, Ernest Martínez, Juan Luis Sánchez de Muniáin, Florentino Briones eta Ana Zabalegui.